



Gazteok LOMCEri ez! Guk geure hezkuntza

Gazteak eta ikasleak gara. Hezkuntza prozesuko subjektuak; erdigunea. Hezkuntza sistemak ikasleok eta herria hezi behar gaitu, baina azken garai hauetan guztiek ikasleoi buruz hitz egiten badute ere, **inork gutxi galdetu digu** edota gure hitza kontuan hartu.

Aipatutakoaren adibide da Espainiako gobernutik datorren azken erasoa: LOMCE hezkuntza lege berria, hain zuzen ere. Erreforma berri honekin, gure eskuetan ditugun tresnak lapurtu eta makinaria oso bat ipini nahi dute euskal hezkuntza txikitu eta ikasleria adoktrinatzeko. Azken 32 urteetan Espainiar Estatuan 11 aldiz aldatu dute hezkuntza legea. Ez da bidezkoa Estatu mailan behin eta berriz hezkuntza legea aldatzea. Hezkuntza politikak adostasunean eraiki behar dira, eta **LOMCE desadostasunean oinarritzen da**. Ez du inolako akordiorik lortu.

Eskola-porrotari aurre egiteko neurri bezala aurkezten digute, baina ikasleonen garapen integrala helburu izan beharrean, berezko doai eta ezgaitasunak ditugula argudiatuz, **gazte gaztetatik abilak garenon eta ez garenon artean bereiztu nahi gaituzte** eta hezkuntza ibilbideak horren arabera antolatu. Baldintza ekonomiko, kultural edo akademikoak gaintutako dituztenen eskubide bilakatu nahi dute hezkuntza. Modu honetan, gerora jendartean eta lan munduan nagusiak izango diren eliteak edota prekarrietatera kondenatuta biziko diren langileak heziko dituzte.

Herri eta gizarte baten garapenean lagundu baino, ikasleok lan produktibo itogarrira bideratu nahi gaitu. **Jarrera kolektiboak bultzatu baino, atomizazioa** du helburu. Norbera berera, ikaskidea kontutan hartu gabe. Ikasleonen arteko **lehiakortasuna** du oinarri lege honek.

Gobernu ezberdinek azken urteotan egin dituzten murrizketen ondorioz, **hezkuntza publikoaren finantziazioa izugarri murriztu** da. Ondorioz, jendartearen gehiengo bati hezkuntza duin bat jasotzeko aukerak murriztu dizkiote, bai eta enpresa pribatuentzat tentagarria izan daitekeen merkatu bat ireki ere. Europatik datozen haize berriek hezkuntza negozio bilakatu nahi dute, **merkatuek dituzten beharrak asetzeko**. Ezin dugu ahaztu hezkuntza eskubide unibertsala dela eta jendartean egon litezkeen mailaketa eta bazterketak ekidin eta kohesio soziala bultzatzeko tresna izan behar duela.

Errezentralizazioa ezarri eta ultrakontserbadurismo espainiarrean oinarrituta, argi utzi zuen José Ignacio Wert Hezkuntza Ministroak zeintzuk diren bere asmoak ("Españolizar a los estudiantes"), errealitate ezberdinen **aniztasunari uko** eginez. Hezkuntzaren bitartez doktrinamendu basati bat abiarazi nahi dute eta hori kontrolatzeko Estatu mailako kanpo ebaluazioak ezarri. Ikasleonen eskolaldiari oztopo etengabeak jarri nahi dizkiote. **la bi urtean behin errebalidak** jarri eta ikasleak zenbaki bilkatu nahi gaituzte, gure etorkizuna baldintzatuz.

Gainera, **hezkuntza koofizialak hirugarren maila** batean jartzen ditu, gure kasuan euskara. Gaur egungo gure ereduak ez badu gizartea euskalduntzen lortu, lege berri honek atzerapauso larriak ekarriko ditu. **Euskaraz ikasi, bizi eta hezteko eskubideak guztiz urratzen** ditu LOMCE-k. Hezkuntza sistemak euskararen normalizazio prozesuan lagundu behar du, ikasteaz gain, euskaraz bizitzeko aukera ahalbidetuz.

Lege honek halaber **sexuen segregazioaren** aldeko jarrerak dituzten eskolak diruz lagunduko ditu. **Eskola sexista** eta matxista bultzatzen du, patriarkatuan sakonduz. Pertsonaren garapen integrala baztertuz, pedagogia atzerakoi, alienatzaile eta baztertzailerik batean oinarritzen da.



Gainera, gaur egun ikasleok subjektu bezala eskolaren eta hezkuntza proiektuaren kudeaketan parte hartzeko aukerik ez badugu, lege honek ikasle bezala ditugun oinarrizko eskubide demokratikoak zapaltzen ditu. **Greba eskubidea** ezabatzen digute, **eskola kontseiluak kontsultarako** organo soil bilakatzen dira (organo erabakitzaile izan beharrean). Eskola ereduaren gaineko erabakiak zentralizatuta egongo dira eta goitik behera inposatuko dizkigute.

Beraz, Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik honakoa eskatzen dugu:

- **LOMCE ez aplikatzeko** eskakizun zehatza egiten dugu. Espainiako Gobernu zentralari legea atzera botatzeko eskatzen diogu eta Eusko Jaurlaritzari legea ez aplikatzeko konpromisoa hartzeko eskatu.
- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko gobernuei **murrizketa guztiak geldiarazi** ditzatela eskatzeaz gain, hezkuntza duin bat bermatzeko behar diren aurrekontuak aldarrikatzen ditugu. Hezkuntza ez da gastu bat, gaurko eta etorkizuneko inbertsioa baizik.
- EAEko ordezkari politikoei euskal gazteon adierazpen hau aintzat hartu dezaten eskatzen diegu.

Bestelako hezkuntza eredu bat aldarrikatzen dugu:

- **Ikasleak subjektu bezala** aintzat hartuko duen hezkuntza eredu bat.
- Herri eta **gizartearen beharren** gainean eraiki eta lan egingo duen hezkuntza.
- **Hezkidetzaillea eta barneratzailea** izango diren eskola ereduak bultzatzea, sexu banaketa oro baztertuz.
- **Hezkuntza komunitatearen parte hartze demokratikoa** bermatuko duen eredu, errealitatearen arabera hezkuntza proiektua nolakoa izan behar den erabakitzeko eskubidea eta ardura aitortuko zaiona.
- **Euskaraz** ikasi, hezi eta bizitzeko eskubidea bermatuko duen hezkuntza eredu.

Dei egiten dugu:

- LOMCEren kontra antolatu eta beste **hezkuntza eredu baten alde** lan egitera.
- Euskal Herriko hezkuntza komunitatearekin batera, **hezkuntzaren gaineko eztabaida soziala** bultzatzeko konpromisoa hartzera, euskal herritarrok gure hezkuntzaren gainean erabaki dezagun.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua - Consejo de la Juventud de Euskadi

2013ko azaroaren 19an